Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua

# **Alkatetzaren Dekretua** Decreto de Alcaldía

Portugaleteko alkateak 2024ko abuztuaren 21(e)an Dekretu hau eman du:
La alcaldesa de Portugalete, el 21 de agosto de 2024 emitió el siguiente Decreto:

Ikusita proposatu egin dela Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu alorreko hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia onestea, behin Portugaleteko Udalbatzak onetsita 2024ko uztailaren 24an Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP, 2024-2027) eta 2024ko maiatzaren 30ean, berriz, hasierako onespena emanda dirulaguntza horien gaineko arautegiari, 30 eguneko epealdia igaro da zeinen bitartean ez baita erreklamaziorik egin. Horren ondorioz, hasieran onetsitako arautegiaren testua behin betiko onartutzat eman da. Beraz, hauxe **xedatzen dut**:
Vista la propuesta de convocatoria para 2024 de las ayudas para la euskaldunización del paisaje lingüístico y el entorno digital en el sector del comercio, hostelería y servicios de Portugalete, que dimana de la aprobación plenaria, de 24 de julio de 2024, del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP, 2024-2027) y de la aprobación inicial de la normativa reguladora de la concesión de tales ayudas, aprobada en Pleno el 30 de mayo de 2024, una vez transcurridos los 30 días de plazo, tras los cuales, sin haberse producido reclamaciones, el texto inicialmente aprobado se ha elevado a definitivo, **vengo en disponer**:

**Lehenik.-** Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu alorreko hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia onartzea, agiri honekin batera datorren eranskinarekin bat etorriz.
**Primero.-** Aprobar la convocatoria de 2024 de las ayudas para la euskaldunización del paisaje lingüístico y el entorno digital en el sector del comercio, hostelería y servicios de Portugalete, de acuerdo con el anexo adjunto.

**Bigarrenik.-** Dagokion gastua onartzea, A fasean (gastua baimentzea), honako xehetasun hauen arabera:
**Segundo.-** Aprobar el gasto correspondiente, en su fase A (autorización del gasto), de acuerdo con el siguiente detalle:

| **Aurrekontu partida**<br>Aplicación presupuestaria | **Gastuaren deskribapena**<br>Descripción del gasto | **Zenbatekoa**<br>Importe |
|---|---|---|
| **01.3350.47101** | **Dirulaguntzak merkatariei**<br>Ayudas a comerciantes | **8.000** |

**Hirugarrenik.-** Esta convocatoria se publicará en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS), en el Boletín Oficial de Bizkaia (BOB) y el tablón de anuncios del Ayuntamiento.
**Tercero.-** Deialdi hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS), Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da.

**Laugarrenik.-** Erabaki honen berri ematea Euskara Zerbitzuari eta Hirigintza, Merkataritza eta Kontu-hartzailetza sailei.
**Cuarto.-** Dar traslado del presente acuerdo al Servicio de Euskera y a los departamentos de Urbanismo, Comercio e Intervención.

Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua

**Hala dekretatu eta izenpetu du Portugaleteko alkateak 2024ko abuztuaren 21(e)an eta nik, behin-behineko idazkari nagusia naizen honek, horren fede eman dut.**
**Lo que decreta y firma la alcaldesa de Portugalete, el 21 de agosto de 2024, de todo lo cual yo, el secretario general accidental, doy fe.**

Alkatea/ La Alcaldesa

[redacted]

Mª José Blanco Gaveiro

Idazkari nagusia/ [redacted] Acctal.

Francisco Javier Sánchez Fernández

**EUSKARA ZERBITZUA** SERVICIO DE EUSKERA
**KONTU-HARTZAILETZA** INTERVENCIÓN
**HIRIGINTZA** URBANISMO
**MERKATARITZA** COMERCIO

# Convocatoria de 2024 de la concesión de subvenciones para la euskaldunización del paisaje lingüístico y el entorno digital en el sector del comercio, hostelería y servicios de Portugalete

**Artículo 1.- Objeto**
El objeto de la presente convocatoria es regular la concesión de subvenciones, mediante régimen de libre concurrencia, a establecimientos de comercio, hostelería y servicios y asociaciones sin animo de lucro de Portugalete, dirigidas a la euskaldunización del paisaje lingüístico y del entorno digital, que se concretan en cuatro conceptos subvencionables diferentes:

- A.- Instalación de rótulos en euskera.
- B.- Instalación de cartelería fija y otros elementos.
- C.- Adopción del dominio .eus.
- D.- Euskaldunización de páginas web.

**Artículo 2.- Bases reguladoras**
Las bases reguladoras de la concesión de estas ayudas fueron aprobadas por el Pleno del Ayuntamiento de Portugalete en sesión ordinaria celebrada el 30 de mayo de 2024 y publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia número 110 el 7 de junio del mismo año.

**Artículo 3.- Cuantía de la subvención**

- Concepto A.- Subvenciones para la instalación de rótulos en euskera. Se subvencionará en un 75 % el importe del gasto de cada rótulo cuya leyenda se redacte exclusivamente en euskera, sin superar los 600 euros. El gasto de cada rótulo cuya leyenda se redacte en los dos idiomas oficiales, en cambio, será subvencionado en un 60 %, sin superar los 400 euros.
- Concepto B.- Subvenciones para cartelería fija y otros elementos del interior de los locales con información para la clientela. Se subvencionará en un 75 % el importe del gasto para la euskaldunización de la cartelería fija y de otros elementos del interior del local que proporcionen información a la clientela relacionada con la actividad comercial u hostelera, hasta un máximo de 600 euros.
- Concepto C.- Subvenciones para la adopción del dominio .eus. Se subvencionará el 100 % del costo, sin superar los 30 euros.
- Concepto D.- Subvenciones para la euskaldunización de páginas web. Se subvencionará en un 50 % el gasto de las webs redactadas exclusivamente en euskera, con un máximo de 600 euros; igualmente se subvencionará el 40 % del gasto de las webs con una página principal en castellano que ofrezcan la opción de cambio de lengua al euskera, con un máximo de 400 euros.

**Artículo 4.- Requisitos y obligaciones de los beneficiarios**
1.- Respecto a la acción subvencionada:

- A y B.- Instalación de rótulos en euskera y cartelería fija:

  a) El texto deberá estar correctamente escrito y para ello la persona interesada podrá solicitar la asistencia técnica del Servicio Municipal de Euskera.

b) La actividad del establecimiento (*bar, panadería, moda...*) tiene que aparecer obligatoriamente en el rótulo; por ejemplo: "Peio arrandegia", "Anatxu taberna". No se subvencionarán los rótulos que solo muestren los nombres propios, sean topónimos o apellidos.

- C.- Adopción del dominio .eus. El contenido de la página web que adopte el dominio .eus deberá encontrarse redactado en euskera o en euskera y en otro idioma. En este caso solo se subvencionará el coste del texto redactado en euskera.
- D.- Euskaldunización de páginas web. Los textos en euskera deberán ser gramaticalmente correctos, de acuerdo con el criterio técnico del Servicio Municipal de Euskera.

2.- Respecto a las personas solicitantes:

a) No encontrarse incursas en los supuestos del apartado 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

b) Someterse a las actuaciones de comprobación que efectúe el órgano concedente, de acuerdo con el apartado 14.1.c de la citada ley.

c) Comunicar la obtención de otras ayudas recibidas para los mismos fines, de acuerdo con el apartado 14.1.d de la citada ley.

d) No tener deudas con la Administración. La inexistencia de deudas con el Ayuntamiento de Portugalete se comprobará de oficio. La inexistencia de deudas con el resto de Administraciones Públicas se manifestará en una declaración responsable.

e) Adoptar las medidas de difusión contenidas en el apartado 4 del artículo 18 de la LGS; es decir, las personas beneficiarias deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de programas.

**Artículo 5.- Plazos y lugares de presentación de solicitudes**

1.- El plazo de solicitud de ayudas permanecerá abierto desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia hasta el 4 de octubre de 2024.

2.- Las solicitudes, junto con la documentación detallada en las citadas bases de concesión de estas ayudas, se entregarán en el Registro del ayuntamiento (de lunes a viernes de 8:00 a 14:00) o en la Oficina Municipal de Atención Ciudadana de la plaza San Roque (de lunes a viernes de 14:30 a 20:15). También se habilita la posibilidad de tramitación por vía electrónica, mediante la presentación de la solicitud normalizada en el Registro Electrónico, a través de la sede electrónica https://tramita.portugalete.org.

3.- Se presentará una única solicitud de ayuda por establecimiento para el conjunto de las inversiones realizadas.

**Artículo 6.- Documentación a presentar**

a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado (anexo 1).
b) Fotocopia del DNI de la persona responsable o representante de la entidad solicitante.
c) Factura original, del año de la convocatoria o del anterior, de los gastos realizados, o fotocopia compulsada.
d) Copias de los justificantes de pago de las facturas presentadas. La justificación de los pagos superiores a 200 euros se acreditará a través de transferencia bancaria, certificación bancaria o extracto de pago. En estos documentos deberán quedar claramente identificados el receptor y el emisor del pago.

e) En el caso de optar a las subvenciones por el concepto A (instalación de rótulos en euskera), fotografía que pruebe la colocación del rótulo; se presentará una fotografía por rótulo.
f) En el caso de optar a las subvenciones por el concepto C (adopción del dominio .eus), URL de la página web y nombre del dominio.
g) Declaración responsable de no encontrarse incurso en los supuestos del apartado 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (anexo 2).
h) Declaración responsable sobre deudas con la Administración y ayudas recibidas para los mismos fines (anexo 3).
i) Autorización, debidamente cumplimentada y firmada, al Ayuntamiento de Portugalete, para que pueda llevar a cabo actuaciones de comprobación, de acuerdo con el apartado 14.1.c de la citada ley (anexo 4).
j) Documento "Alta o modificación de datos" (anexo 5) debidamente cumplimentado.

**Artículo 7.- Instrucción**
1.- La propuesta de concesión se formulará al órgano concedente por un órgano colegiado a través del órgano instructor.
2.- El órgano instructor será el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Portugalete.
3.- El órgano colegiado referido estará constituido por:
- Una técnica o técnico de normalización lingüística, en funciones de presidencia.
- Una técnica o técnico de normalización lingüística, en funciones de secretaría.
- Una técnica o técnico de cultura, como vocal.

**Artículo 8.- Resolución y notificación**
1.- El órgano competente para resolver será la Alcaldía-Presidencia.
2.- El plazo de resolución y notificación del procedimiento finalizará el 4 de abril de 2025.
3.- Contra tal resolución municipal, que es definitiva en vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo y, con carácter potestativo y previo, recurso de reposición.

**Artículo 9.- Publicidad de las subvenciones**
Finalizado el plazo de presentación y una vez resueltas todas las solicitudes se publicará conforme al artículo 18 de Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y al artículo 30 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

**Artículo 10.- Dotación presupuestaria**
El crédito destinado a satisfacer los gastos de esta convocatoria asciende a ocho mil euros (8.000 €) con cargo a la partida 01.3350.47101 del presupuesto vigente.

**Artículo 11.- Protección de datos personales**
En cumplimiento de lo establecido en el artículo 13 del Reglamento General de Protección de Datos 2016/679, el Ayuntamiento de Portugalete le informa de que los datos facilitados serán tratados para poder desarrollar nuestra actividad propia como entidad local. Puede ejercitar sus derechos de protección de datos realizando una

solicitud escrita, junto con una fotocopia de su DNI, a la dirección del Ayuntamiento de Portugalete (Plaza del Solar s/n, 48920, Portugalete, Bizkaia), o bien puede dirigirse a nuestro delegado de Protección de Datos a través del correo electrónico (dpd@portugalete.org). Más información sobre el tratamiento de sus datos en nuestra web www.portugalete.org.

**Artículo 12.- Confidencialidad de la información**

El Ayuntamiento de Portugalete asume el compromiso de que la información personal recabada acerca de los y las beneficiarias de estas ayudas no será utilizada para ningún fin diferente al del propio ámbito del programa.

El tratamiento de los datos personales se llevará a cabo según lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, asi como en el Reglamento General de Protección de Datos 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.

# Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen alorrean hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia

**1. artikulua.- Xedea**

Deialdi honen xedea da Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduei eta irabazi-asmorik gabeko elkarteei hizkuntza-paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko dirulaguntzak lehia askeko araubidearen bidez ematea arautzea. Diruz lagun daitezkeen lau kontzeptutan zehazten dira dirulaguntza horiek:

- A.- Euskarazko errotuluak jartzea.
- B.- Kartel finkoak eta beste hainbat elementu esukalduntzea.
- C.- .eus domeinua hartzea.
- D.- Webguneak euskaratzea.

**2. artikulua.- Arautegia**

Dirulaguntza hauen gaineko arautegia Portugaleteko Udalbatzak onetsi zuen 2024ko maiatzaren 30eko ohiko bilkuran eta 2024ko ekainaren 7ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (110. zenbakia) argitaratu zen.

**3. artikulua.- Dirulaguntzaren zenbatekoa**

- A kontzeptua.- Euskarazko errotuluak jartzea. Euskaraz bakarrik idatzitako errotulu bakoitzaren gastuaren % 75 diruzlagunduko da, 600 euro gainditu gabe. Bi hizkuntza ofizialetan idatzitako errotulu bakoitzaren gastuari, berriz, % 60ko dirulaguntza emango zaio, 400 euro gainditu gabe.
- B kontzeptua.- Kartel finkoak eta beste hainbat elementu jartzea lokalen barruan, bezeroentzako informazioa dakartelarik. Bezeroentzako informazioa dakarren kartel finko bakoitzaren edota lokal barruko beste elementu bakoitzaren gastuaren % 75 diruzlagunduko da, 600 euro gainditu gabe.
- C kontzeptua.- .eus domeinua hartzea. Gostearen % 100 diruzlagunduko da, 30 euro gainditu gabe.
- D kontzeptua.- Webguneak euskaratzea. Euskara hutsez idatzitako webguneen gastuaren % 50 diruzlagunduko da, 600 euro gainditu gabe; era berean, hizkuntza euskarara aldatzeko aukera eskaintzen duten gaztelaniazko webguneen gastuaren % 40 diruzlagunduko da, 400 euro gainditu gabe.

**4. artikulua.- Onuradunen eskakizunak eta betebeharrak**

1.- Diruz lagundutako ekintzari dagokionez:

- A eta B.- Euskarazko errotuluak eta kartel finkoak jartzea:

  a) Errotuluko testuak zuzen idatzita egon beharko du. Honetaz Udalaren Euskara Zerbitzuak aholkua eskainiko die hala eskatzen dutenei.

  b) Establezimenduaren jarduerak (taberna, okindegia, arropa-denda...) derrigor agertu behar du errotuluan; adibidez: "Peio arrandegia", "Anatxu taberna". Ez dira diruz lagunduko izen propioak, toponimoa edota abizenak, soilik agertzen dituzten errotuluak.
- C.- .eus domeinua hartzea. .eus domeinua hartzen duen webgunearen edukia euskaraz ala euskaraz eta beste hizkuntza batez idatzita egongo da. Bigarren kasu horretan euskarazko testuaren gostea baino ez da diruz lagunduko.

- D.- Webguneak euskaratzea. Euskarazko testuak gramatikalki zuzenak izan beharko dira, Udalaren Euskara Zerbitzuaren irizpide teknikoen arabera.

2.- Eskatzaileei dagokienez:

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 13.2 ataleko suposamenduetan.

b) Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztaketa guztiak onartzea, aipatutako Legeko 14.1.c atalarekin bat etorriz.

c) Helburu berbera duen beste dirulagutza batzuen berri ematea, aipatutako Legeko 14.1.d atalarekin bat etorriz.

d) Administrazioarekiko zorrik ez edukitzea. Portugaleteko Udalarekiko zorrik ez izatea ofizioz egiaztatuko da. Gainontzeko Herri Administrazioekiko zorrik ez izatea, berriz, ardurazko aitorpen batean adieraziko da.

e) DLOren 18. artikuluko 4. paragrafoan jasotako zabalkunde-neurriak hartzea; hau da, onuradunek programen finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egin beharko dute.

**5. artikulua.- Eskaerak egiteko epeak eta tokiak**

1.- Dirulaguntza hauek eskatzeko epea arau hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zabalduko da eta 2024ko urriaren 4an itxi.

2.- Eskaerak, dirulaguntza hauen arautegian eskatutako agiriekin batera, udaletxeko Erregistrora (astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara) edo San Roke plazako Herritarren Arretarako Bulegora (astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era) eramango dira. Izapide elektronikoak egiteko aukera ere badago; horretarako, eskabide normalizatua Erregistro Elektronikoan aurkeztuko da, egoitza elektroniko honen bidez: https://tramita.portugalete.org.

3.- Establezimenduek laguntza-eskabide bana aurkeztuko dute egindako inbertsio guztietarako.

**6. artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

a) Dirulaguntzaren eskabidea (1. eranskina) behar bezala beteta.
b) Erakunde eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren NANren fotokopia
c) Egindako gastuen jatorrizko faktura, deialdiaren urte berekoa edo aurreko urtekoa, edo horren fotokopia konpultsatua.
d) Aurkeztutako fakturen ordainagirien kopiak. Berrehun eurotik gorako ordainketak banku-transferentzia, banku-ziurtagiri edo ordainketa-laburpenaren bidez egiaztatuko dira. Agiri horietan argi eta garbi identifikatu beharko dira ordainketaren hartzailea eta jaulkitzailea.
e) A kontzeptuko dirulaguntza eskatuz gero, hots, euskarazko errotulua instalatzeagatik, errotulua instalatuta dagoela egiaztatzeko argazkia aurkeztu beharko da. Errotulu batzuk instalatzen direnean, horien argazki bana aurkeztu beharko da.
k) C kontzeptuko dirulaguntza eskatuz gero, hots, .eus domeinua hartzeagatik, Webgunearen URL eta domeinuaren izena.
f) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 13.2 ataleko suposamenduetan ez dagoelako ardurazko adierazpena (2. eranskina).
g) Helburu berbera duen beste dirulagutza batzuei buruzko eta Administrazioarekiko zorrei buruzko ardurazko adierazpena (3. eranskina).
h) Baimena Portugaleteko Udalari, behar bezala beteta eta sinatuta, aipatutako legearen 14.1.c atalaren arabera egiaztapen-jarduerak egin ditzan (4. eranskina).

i) "Datuen alta edo aldaketa" izeneko dokumentua (5. eranskina), behar bezala beteta.

**7. artikulua.- Instrukzioa**

1.- Organo kolegiatu batek dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio organo emaileari, instrukzio-organo baten birtartez.
2.- Instrukzio-organoa Portugaleteko Udalaren Euskara Zerbitzua izango da.
3.- Aipatutako organo kolegiatuaren kideak hauexek izango dira:

- Hizkuntza normalizazioko teknikari bat, presidentetzako zereginetan.
- Hizkuntza normalizazioko teknikari bat, idazkaritzako zereginetan.
- Kulturako teknikari bat, kide gisara.

**8. artikulua.- Ebazpena eta jakinarazpena**

1.- Ebazpena egiteko eskumeneko organoa Alkatetza-Udalburutza da.
2.- Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea 2025eko apirilaren 4an amaituko da.
3.- Udal-ebazpen horren aurka, zein behin betikoa baita administrazio-bidean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da eta, nahi izanez gero eta aldez aurretik, berraztertzeko errekurtsoa ere bai.

**9. artikulua.- Dirulaguntzen publizitatea**

Aurkezteko epea amaituta eta eskaera guztiak ebatzita, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluaren eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikuluaren arabera argitaratuko da.

**10. artikulua.- Aurrekontuko zuzkidura**

Dirulaguntzen deialdi honen gastuetarako kreditua zortzi mila eurokoa da (8.000 €), indarreko udal aurrekontuko 01.3350.47101 dirusailaren kontura.

**11. artikulua.- Datu pertsonalen babesa**

Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, Portugaleteko Udalak jakinarazten dizu emandako datuak erabiliko direla toki-erakunde gisa gure jarduera propioa garatu ahal izateko. Zure datuak babesteko eskubideak erabiltzeko, eskaera idatzia bidali ahal duzu, zure NANaren fotokopiarekin batera, Portugaleteko Udalaren helbidera (Orube plaza z. g., 48920, Portugalete, Bizkaia), edo bestela, Datuak Babesteko gure ordezkariarengana jo dezakezu posta elektronikoaren bidez (dpd@portugalete.org). Zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago dago gure webgunean: www.portugalete.org.

**12. artikulua.- Informazioaren konfidentzialtasuna**

Portugaleteko Udalak konpromisoa hartzen du dirulaguntza hauen onuradunei buruz bildutako informazio pertsonala ez duela erabiliko programaren eremuaz bestelako helburuetarako.
Datu pertsonalen tratamendua Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (datu perstonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio

askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) ezarritakoaren arabera egingo da.

Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua

1. eranskina Anexo 1

# Eskabidea Solicitud

## Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen alorrean hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko dirulaguntzarena
## de subvenciones para la euskaldunización del paisaje lingüístico y el entorno digital en el sector del comercio, hostelería y servicios de Portugalete

| Eskatzailearen izen-abizenak Solicitante: nombre y apellidos | NAN DNI |
|---|---|
| | |

| Enpresaren izena Nombre de la empresa | IFZ CIF |
|---|---|
| | |

| Merkataritza izena Nombre comercial | Jarduera Actividad |
|---|---|
| | |

| Helbidea Dirección |
|---|
| |

| @ | Tel |
|---|---|
| | |

**Dirulaguntzaren kontzeptua.** Marka itzazu eskatu nahi dituzun guztiak.
**Concepto por el que solicita subvención.** Marque tantos cuantos correspondan.

| | | | |
|---|---|---|---|
| □ A<br>□ B | Euskarazko errotuluak edota kartel finkoak instalatzea<br>Instalación de rótulos o cartelería fija en euskera | → | Testua Texto |
| □ C | .eus domeinua hartzea<br>Adopción del dominio .eus | → | Url |
| □ D | Webguneak euskarazea<br>Euskaldunización de páginas web | | |

Portugalete, ..................................

Eskatzailearen sinadura Firma de la persona solicitante

Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua

2. eranskina Anexo 2

# ARDURAZKO AITORPENA DECLARACIÓN RESPONSABLE

## Aitorpen-egilearen datuak Datos de la persona declarante

Izen-abizenak
Nombre y apellidos ..........................................................................................................

NAN DNI ..................................................................

AITORTZEN DUT

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 13.2 ataleko suposamenduetan (1) ez nagoela.

DECLARO

no encontrarme incurso en los supuestos del apartado 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (2).

Portugalete, ..................................................

Izenpea Firma

(1) 1.- Epai irmo baten bidez, dirulaguntza publikoak jasotzeko aukera galdu izana. 2.- Borondatezko konkurtsoaren aitorpena eskatu izana, kaudimengabe aitorpena izan, konkurtsoan deklaraturik egon, baldin eta konkurtsoak hitzarmen baten eraginkortasuna hartu ez badu behintzat, esku-hartze judizial baten pean egon edo, Konkurtsoen 22/2003 Legea dela medio, desgaikuntza jaso izana. 3.- Administrazioarekin egindako kontratu bat irmo desegin arazi izana. 4.- Pertsona fisikoa, sozietate merkantilen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen lege ordezkariak bateraezintasunei buruzko 12/1995 edo 53/1984 legeetako suposamenduetan sartuta egon edo Hauteskunde Jaurpide Nagusiari buruzko 5/1985 Lege Organikoak araupetzen dituen hautapenezko karguetako bat izan. 5.- Tributu beharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez eduki. 6.- Egoitza fiskala paradisu fiskal batean eduki.
7.- Dirulaguntzak itzultzeko ordainketa egunean ez eduki.
8.- Ebazpen irmo batek zigortuta, Lege honen edo Tributuen Lege Nagusiaren araberako dirulaguntzak jasotzeko aukera galdu izana.

(2) 1.- Haber perdido mediante sentencia firme la posibilidad de obtener ayudas públicas. 2.- Haber solicitado la declaración de concurso voluntario, haber sido declarados insolventes, hallarse declarados en concurso, salvo que en éste haya adquirido la eficacia un convenio, estar sujetos a intervención judicial o haber sido inhabilitados conforme a la Ley Concursal 22/2003. 3.- Haber dado lugar a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración. 4.- Estar incursa la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o quienes ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de las leyes 12/1995 o 53/1984, de incompatibilidades, o tratarse de cualquiera de los cargos electivos regulados en la Ley Orgánica 5/1985, del Régimen Electoral General. 5.- No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social. 6.- Tener la residencia fiscal en un paraíso fiscal. 7.- No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones. 8.- Haber perdido mediante resolución firme la posibilidad de obtener subvenciones según esta Ley o la Ley General Tributaria.

Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua

3. eranskina Anexo 3

# Ardurazko aitorpena Declaración responsable

## Aitorpen-egilearen datuak Datos de la persona declarante

Izen-abizenak
Nombre y apellidos
..................................................................................................................................

NAN DNI ......................................................................

| aitortzen dut | declaro |
|---|---|
| □ ez dudala zorrik Herri Administrazioarekin eta | □ que no tengo deudas con ninguna Administración Pública y |
| □ Portugaleteko Udalari o merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen alorrean hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko eskatutako dirulaguntzaz aparte, | □ que, además de la subvención solicitada al Ayuntamiento de Portugalete para la euskaldunización del paisaje lingüístico y el entorno digital en el sector del comercio, hostelería y servicios, |
| □ ez dudala beste dirulaguntza edo finantzaziorik jaso xede honetarako. | □ no he recibido ninguna otra ayuda ni financiación para ese mismo fin. |
| □ dirulaguntza jaso dudala erakunde honetatik: | □ he recibido financiación de |

..................................................

Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua
Portugaleteko Udala

zenbatekoa hauxe delarik: por importe de

........................................ €

Portugalete, ....................................................

Izenpea Firma

Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua

**4. eranskina**
anexo 4

# Baimena Autorización

## Baimen-emailearen datuak Datos de la persona autorizante

Izen-abizenak Nombre y apellidos

.................................................................................................................................

NAN DNI .................................................................

Agiri honen bidez, baimena ematen diot Portugaleteko Udalari egiaztapenak egin ditzan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 14.1.c atalarekin bat etorriz.

Mediante el presente documento autorizo al Ayuntamiento de Portugalete para que pueda llevar a cabo actuaciones de comprobación, de acuerdo con el apartado 14.1.c de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Portugalete, ............................................................

Izenpea Firma

Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua

5. eranskina Anexo 5

# DATUEN ALTA EDO ALDAKETA

## *ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS*

**PERTSONA EDO ENTITATE INTERESATUAREN EZAGUPENERAKO DATUAK**
**DATOS IDENTIFICATIVOS DE LA PERSONA O ENTIDAD INTERESADA**

NAN edo IFK DNI o CIF ..........................................................

Abizenak eta izena edo sozietaren izena Apellidos y nombre o razón social

..........................................................................................................................................................

**DATOS BANCARIOS BANKUAREN DATUAK**

Bankua Banco | | | | |

Sukurtsala Sucursal | | | | |

KD DC | | |

Kontu korrontea Cuenta corriente | | | | | | | | | | |

Kontuaren jabea Titular de la cuenta

..........................................................................................................................................................

Solo para cuentas corrientes en el extranjero A rellenar por el banco
Atzerriko diru-kontuetarako soilik Bankuak bete behar

IBAN

| Interesatuaren adostasuna<br>Conformidad de la persona interesada | Bankuaren adostasuna<br>Conformidad del banco |
|---|---|
| | |

Portugalete, ..............................................

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian jakinaratzen dizugu zeure datuak "Terceros Contabilidad" izeneko fitxategian sartu eta erabiliko ditugula. Futxategi horren ardura Portugaleteko udalari dagokio eta udal kontularitza eta diru-sarreren, gastuen, abalen eta fiantzen aurrekontua egiteko eta estatistikarako erabiltzen duela. Interesatuak datu horiek eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta aurkatu ahal izango ditu Portugaleteko udaletxeko Erregistro Nagusian: Solar plaza z. g. 48920 Portugalete.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero "Terceros Contabilidad", del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es realizar la contabilidad municipal y el presupuesto de ingresos, gastos, avales y fianzas y fines estadísticos. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento: Plaza del Solar s/n, 48920 Portugalete.

PORTUGALETEKO UDAL DIRUZAINTZA
TESORERÍA DEL AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE